

LABORATEGIAK ETA TAILERRAK ERABILTZeko ARAUDIA

1. Araudi honen helburua da arau eta xedapenak ezartzea **Leioako Arte Ederren Fakultateak dituen tailerren funtzionamendu egokirako** eta bertako instalazioen, ekipamenduaren eta altzarien erabilera egokirako.
2. Tailerren helburu nagusia da prestakuntza-prozesuaren tresna bat izatea, eta, hortaz, **bakarrik erabiliko dira xede akademikoetarako, ikerketa eta proiektuen garapenerako eta ikasleen praktiketarako.**
3. Orokorrean, Unibertsitateak haien erabilera eskatzen dutenen esku jartzen dituen **instalazio hauek zaintzeko eta ondo erabiltzeko konpromisoa** unibertsitate-komunitatearen kide guzti-guztion eginkizuna da, eta, zehazki, tailerreko praktikaren batera datozen *ikasle* guztiek errespetatu behar dituzte Araudi honetan ezarritako arauak.
4. **Arriskugarriak izan daitezkeen praktikak edo lanak irakasleen edo tailerretako teknikariaren gainbegiratupean egin beharko dira.**
5. **Jokabide egokiz** jardun beharko da. *Erabiltzaileentzat* guztiz debekatuta dago tailerretan honako hau egitea: erretzea, elikagaiak eta edariak jatea (ura izan ezik), ordena orokorrean nahasten duten jarduerak egitea, eta ekipoak erabiltzea programatutakoa ez den ezein xedetarako.
6. Laborategien barruan honako **segurtasun-arau** hauek bete beharko dira:
 - Praka luzeak erabili beharko dira.
 - Segurtasun-eskularruak eta –betaurrekoak erabili beharko dira.
 - Bereziki saihestuko da sandaliak edo itxi gabeko oinetakoak erabiltzea.
 - Transmisio-elementuak babestea babesgarri finko edo mugikorren bitartez.
 - Derrigorrezkoa da ekipoen erabilerari buruzko prestakuntza egokia izatea. Argibideen eskuliburuaren arabera jardun behar da.

Ordena, garbitasuna eta kontserbazioa

- Ekipoak kontserbazio-egoera onean eta garbi mantendu behar dira.
 - Halaber, osagarrien ordena, garbitasuna eta kontserbazioa ere zaindu behar dira; leku bat izatea gauza bakoitzerako eta gauza bakoitza bere lekuan uztea.
 - Pasabideak, lan-eremuak eta ekipoen ingurumariak garbi eta oztoporik gabe egon behar dira.
 - Erabilitako produktu kimikoak eta haien ontziak modu egokian biltegitatu eta etiketatu behar dira, batzen diren arte, produktuaren fitxa teknikoak kontuan hartuta.
7. Laborategi eta tailerreko aparatuak, ekipoak eta materialak horien barruan erabili beharko dira; **ez dago baimenduta hortik ateratzea tailerretako teknikari arduradunaren** eta arloko *irakasle baimenduen* baimena izan gabe.
 8. Laborategiak erabiltzen dituzten *ikasleek ezin izango dute, inola ere ez*, laborategietan dauden **ekipoen konfigurazioa eta programazioa aldatu edo nahastu**, ezta ekipoak euren kabuz mugitu, lekuz aldatu, konektatu edo deskonektatu ere.
 9. *Ikasleak* aurretik programatutakoaren arabera sartuko dira tailerretara, **haien erabilerarako jarritako ordutegietan**, ikasgaien klase praktikoen arabera eta horien *irakasleen* gainbegiratupean.
 10. Euren praktika hasi aurretik, *ikasleek aztertu beharko dute zer baldintzatan jasotzen ari diren instalazioak eta tailerreko aparatuak* (jaso zituzten bezala uzteko, baldintza berdinetan), eta kalteren bat egonez gero edo gertatuz gero horren berri eman beharko diote berehala arloko *irakasle* arduradunari.
 11. Araudi honetan **aurreikusita ez dauden kasuak Fakultateko Zuzendaritzak** aztertu eta bideratuko ditu, *tailerretako teknikari arduradunarekin* eta dagokion arloko *irakasle baimenduenekin* batera.